He mencionado el marco general, me he acercado a esta comarca, y finalmente, voy a referirme a Durango. No en vano, en Durango se está revisando el plan general de urbanismo, y para ello, acordamos aquí que se necesita un diagnóstico participativo. Ese diagnóstico se ha puesto en marcha con un texto inicial redactado por el consultor de una empresa determinada.

Voy a leer un párrafo recogido en ese texto, que nos presentaron la semana pasada: *“El principal reto de la movilidad sostenible es reducir la dependencia del vehículo privado. Para ello, el primer paso consiste en desarrollar un urbanismo de proximidad; los equipamientos, comercios, servicios y empleos se localizan en la proximidad de las viviendas. El municipio*



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

proximidad de las viviendas. El municipio debe diseñarse a la medida del peatón y la bicicleta".

Honekin berriz ere agerian utzi nahi dut 32.000 m² birkalifikatzea Durangoko kanpoaldean merkataritza gunea handitzeko irizpide honen kontra doala. Badakit erabaki hau Abadiñok hartu behar duela, baina guk badaukagu zeresanik. Lehenengo eta behin, gure mugan dagoelako eta hirigintza ez delako bakarrik marrazki batzuk egitea plano batzuetan, baizik eta alboko herriarekin bideragarria egitea egiten duzun plangintza, ados egotea eta eredu sozio-ekonomiko baten hausnarketaren ondoren hirigintza garatzea.

Eta hori da mozio honekin lortu nahi duguna; jakin nahi dugu talde guztien jarrera politikoa zein den, aukerak ditugulako gure egoera sozio-ekonomikoa defendatzeko.

* **Garate Mintegui jaunak (PP):** Baten bat beste udal bateko eskumenetan sar gaitezen saiatzen ari dela uste dut. Kontua ez da esatea saltoki txikiaren alde gaudela esango ote dugun; hala ere, bai, inolako zalantzarik gabe. Jokoaren eta legearen arauak betetzearen alde gaude. Eta berriro diot, beste udal baten eskumenak direla uste dut.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Aurkeztu zaigun testuarekin ados gaude, baina 3. puntuari alternatiba bat aurkeztu nahi diogu. Hona hemen proposamena: *"Behar diren mekanismoak jarriko dira martxan, Durango udalerriarentzako garapen iraunkorra defendatzeko, eta udal-planteamendua garapen mota horrekin bateragarria izatea defendatzeko"*. Horraino ageri da aurkeztu zaigun testuan, eta guk honako hau gehituko genuke: *"horretarako, ahalik eta lasterren egingo dute bat mugakide diren udalek, Lurzoruari buruzko Legearen 63. artikulua ezartzen duen bezala"*. Hitz-tarte hori gehitu nahi dugu, eta onartzen ote den jakin.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea):** Gure ustez, nahiz eta Alderdi Popularreko kideak

debe diseñarse a la medida del peatón y la bicicleta".


Una vez más, quiero poner de manifiesto que recalificar 32.000 m² en la periferia de Durango para ampliar el centro comercial va en contra de ese criterio. Sé que esa decisión la debe tomar Abadiño, pero nosotros también tenemos algo que decir sobre ello. En primer lugar, porque está en el límite con Durango, y porque el urbanismo no consiste solamente en hacer unos dibujos en unos planos, sino en una planificación que permita una situación viable con el pueblo colindante, que permita el acuerdo y que sea consecuente con la reflexión realizada sobre el modelo socioeconómico.

Eso es lo que queremos conseguir con esta moción. Queremos saber cuál es la actitud política de todos los grupos, porque tenemos la oportunidad de defender nuestra situación socioeconómica.

* Concejál **Sr. Garate Mintegui (PP):** Creo que alguien está intentando que nos inmiscuyamos en las competencias de otro ayuntamiento. No se trata de decir si diremos que estamos a favor del pequeño comercio que, por otra parte, sin ninguna duda. Diré que estamos a favor del cumplimiento de las reglas del juego y de la ley. Y vuelvo a reiterar que creo que son competencias de otro ayuntamiento.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Estaríamos de acuerdo con el texto que se nos presenta, sin embargo presentaríamos una alternativa al punto 3. La propuesta que hacemos quedaría así: *"Se pondrán en marcha los mecanismos pertinentes para defender un desarrollo sostenible para el municipio de Durango, y para defender la compatibilización del planeamiento municipal con este tipo de desarrollo"*. Hasta aquí aparece en el texto que se nos presenta y nosotros añadiríamos: *"para lo que se unirán en la mayor brevedad los ayuntamientos limítrofes tal y como establece la Ley del suelo en su artículo 63"*. Nos gustaría añadir este inciso y nos gustaría saber si se acepta este añadido en el texto.

* Concejál **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea):** Nosotros creemos que, pese que el



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

uste duen eskumenetan sartzea dela, eskualde batean gaude eta Durangon eragin handia izango du. Merkataritza txikiari lotuta dauden profesionalen zuzeneko eta zeharkako enpleguaren suntsipena ekarriko luke. Baina horrek guztiak honako hau hausnarrarazi beharko liguke: Zer garapen-eredu –ez bakarrik ekonomikoa eta soziala– nahi dugu Durangon? Saltoki txikiek ateak ixtea, kaleak hutsik geratzea eta bizitzarik ez egotea nahi al dugu?

Gure ustez, durangarrok asko dugu esateko prozesu honetan; merkatariek asko dute esateko, eta merkataritza-zentroaren kokapena dela eta, San Fausto auzotik hurbil, auzokoek ere asko dute esateko, azalera horietara sartzeko bidea San Faustotik izango delako eta trafikoa areagotuko delako... Askok dugu esateko kokapenari, eraginari buruz; izan ere, eskualdeetan metro koadroko zenbateko azalera eraiki daitezkeen ezartzen duten arauak dauzkagu...

Iraunkortasun maila lortu behar dugu, non azalera handiko saltokiak eta saltoki txikiak elkarrekin egon daitezkeen. Sarritan, azalera handien alde egiten dutenek askatasunaz hitz egiten dute, baina askatasuna hautatu ahal izatea da. Saltoki txikiak kentzen baditugu, askatasuna murrizten dugu, ezin izango dugulako aukeratu, ekonomia-eta kontsumo-eredu bakarra izango dugu.

* **4. Alkateordea Diaz Bastera andreak (EAJ/PNV):** Uste dut denok argi daukagula zer den Abadiño eta zer Durango, eta bakoitzak bere eskumenak dauzkala. Gu, gure eskumenen barnean dagoena egiteko prest gaude.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu):** Nahiko bitxia da Alderdi Popularreko Bozeramale baten ahotan entzutea “joko arauen eta legearen alde” daudela, jakinda, gaur egun Europan seguruenik inputatu gehien dituen alderdi dela. Dena den, esan behar dugu ez dugula nahi eztabaida juridiko baten inguruan aritzea gaurkoan; nahi duguna da jarrera politiko bat hartzea, eta durangar bezala adieraztea Abadiñon egin nahi dutena egiten bada oso kaltegarria izango dela guretzat, bereziki Durango


compañero del Partido Popular piense que es inmiscuirse en competencias, estamos en una comarca y va a tener una afección muy grande en Durango. Generaría una destrucción de empleo directo e indirecto de tantos y tantos profesionales que trabajan vinculados al pequeño comercio. Pero esto nos debería llevar a una reflexión: ¿Qué modelo de desarrollo no solo económico y social pretendemos en Durango? Queremos que el pequeño comercio cierre, que las calles estén vacías, que no haya vida.

Nosotros creemos que los duranguenses y las duranguesas tenemos mucho que decir en este proceso, los y las comerciantes tienen mucho que decir y el lugar donde va ubicado el centro comercial, cerca del barrio San Fausto, los vecinos y las vecinas también tienen mucho que decir porque parte de la entrada a estas superficies van a ser por San Fausto, aumentará el tráfico.... Tenemos mucho que decir por la ubicación, por el impacto, porque tenemos unas reglas que marcan un poco por metro cuadrado en las comarcas cuantas grandes superficies se pueden construir...

Tenemos que llegar a un nivel de sostenibilidad, que puedan convivir las grandes superficies y el pequeño comercio. Muchas veces, los que abogan por las grandes superficies hablan de la libertad, pero la libertad está en poder elegir. Si suprimimos el pequeño comercio, nos reducimos la libertad porque no vamos a poder elegir, solo vamos a tener un modelo económico y de consumo.

* **4ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Bastera (EAJ/PNV):** Creo que todos tenemos claro qué es Abadiño y qué es Durango, y que cada uno tiene sus competencias. Nosotros estamos dispuestos a hacer todo lo que entre dentro de las nuestras.

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (EH Bildu):** Es bastante curioso escuchar a un Portavoz del Partido Popular decir que están “a favor del cumplimiento de las reglas del juego y de la ley”, sabiendo que, probablemente, es el partido europeo que más imputados tiene actualmente. Aun así, lo que hoy queremos no es entrar en un debate jurídico, sino que todos nos posicionemos políticamente, y que como duranguenses expresemos que lo que quieren hacer en Abadiño va a ser muy perjudicial para



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

barruan dagoen merkataritzarentzat. Merkataritza horrek sekulako garrantzia dauka gure eredu sozio-ekonomikoan, eta horretaz hitz egin nahi dugu. Aipatutako jarrera politiko hori hartzen bada, badaude tresna politikoak hori eragozteko, edo, gutxienez, ahal den guztia egiteko hori horrela ez izateko.

Kanpoko auzoetan jaio eta bizi izan garenok, San Ignacion, Landakon, San Fauston edo Aramotzen, gogoratzen ditugu garai batean dendak zeudela auzoetan, bizitza zegoela eta gero eta gehiago ari gara galtzen merkataritza mota hori. Horrek eragina dauka ostalaritzan ere bai, bizi kalitatean, auzoetan dagoen bizitasunean....

Hori da guk gaur nahi duguna, hau da, jarrera politiko bat hartzea. Hori lortzen badugu, bilatuko ditugu eta badaude tresna juridikoak horri aurre egiteko; beraz, Gobernu Taldeak proposaturikoa- rekin ados gaude, eta sartuko dugu puntu hori mozioan.

* **Garate Mintegui jaunak (PP):** Herriaren Eskubidearen kideari esan nahi diot baietz, eragina izango duela, jakina, Durangon, onerako eta txarrerako. Baina berriro ere esan nahi dut mozio honen planteamenduan beste udalerrri bateko kontuetan sartzen ari garela.

Guztiok dakigu proposamena egiten duen Taldea merkataritza askearen eta lehia askearen aurkari sakona dela; izan ere, azken batean, benetako askatasuna den guztia ukatu egiten du. Saiatzen dira saltoki txikien inguruko ardura adierazten – eta, jakina, denok dakigu zer garrantzitsuak diren eta defendatu egin nahi ditugu–, baina, azken batean, gehien interesatzen zaiena da saltokietako errotuluak euskaraz egotea eta horietan euskaraz egitea harrera.

Ardura ez da hainbeste kontsumitzaileak prezio hobeak izatea, kalitate hobe, arreta eta zerbitzu hobe, ez; hori ez da beren kezka nagusia. Proposamena egin duen taldeak ulertu behar du demanda aldatzen ari dela, demografiaren, familiaren eraketaren, bizikidetzaren unitateen, errenta mailen, aisiarako baliatzen den ordu-kopuruaren, kontziliazio-kontuen eta beste hainbat konturen ondorioz.

nosotros, especialmente para el comercio de Durango. Ese comercio es muy importante en nuestro modelo socioeconómico, y eso es de lo que queremos hablar. Si nos posicionamos políticamente como hemos dicho antes, existen herramientas políticas para impedirlo, o al menos, para hacer todo lo posible para que no ocurra.


Los que hemos nacido y vivido en barrios periféricos, en San Ignacio, Landako, San Fausto o Aramotz, recordamos la época en que había tiendas en los barrios; había vida, y cada vez perdemos en mayor medida ese tipo de comercio. Eso también influye en la hostelería, en la calidad de vida, en la vitalidad de los barrios...

Es lo que queremos hoy: posicionarnos políticamente. Si lo conseguimos, buscaremos las herramientas jurídicas para hacerle frente a la situación, porque existen esas herramientas. Así pues, estamos de acuerdo con lo que ha propuesto el Equipo de Gobierno, e incluiremos ese punto en la moción.

* **Concejal Sr. Garate Mintegui (PP):** Al compañero de Herriaren Eskubidea le diré que por supuesto que va a afectar a Durango, para lo favorable y para lo desfavorable; pero insisto en que el planteamiento de esta moción sí nos estaríamos inmiscuyendo en asuntos de otro municipio.

Ya sabemos todos que el Grupo proponente es un profundo enemigo del libre comercio y la libre competencia, porque en el fondo, lo que le suene a la verdadera libertad le repele. Intentan manifestar una preocupación por el pequeño comercio, que por supuesto todos sabemos de su importancia y queremos defenderlo, pero en el fondo de verdad lo que más les interesa, lo que más les ocupa y les preocupa es que los rótulos de los comercios estén en euskera y que en ellos se atienda en euskera.

No es tanto en que en consumidor o consumidora tenga mejores precios, más calidad, mejor atención y mejor servicio, no, esa no es su verdadera preocupación. El Grupo proponente tiene que entender que la demanda está cambiando como consecuencia de la demografía, la composición de las familias, las unidades de convivencia, los niveles de renta, por el número de horas que se dedican al ocio, por cuestiones de conciliación etc.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

EH Bilduk beste udal bati, Abadiñoakoari, dagokion erabakia zalantzan jartzeko ausardia du, eta ziurtzat jotzen du udal hark ez duela egingo legeak agintzen diona. Eta hori bada ausardia. Baina kasu honen gauzarik harrigarriena da prentsan agertu direla, dagoeneko, Udalak jarraituko dituen urratsak, eta legeak agintzen duena da.

Alderdi Popularrak ez du ulertzen Durangoko EH Bildu udal horren erabakietan sartu behar izatea. Hain beligeranteak izan ziren azalera handiekin eta saltoki txikien defendatzaileak, Eroski ireki zenean, gaur egun eztabaidatzen ari garen lekutik metro gutxira? Gogoberotasun berarekin defendatu al dituzte beharbada Eroskiren eragina jasan duten aurrezteak txikiak? Neurtzeko modu bi dituzte? Alderdi Popularrak baietz uste du. Baina, Durangoko Udalari dagokionez:

Lehenengoa: posible da, ia ziurra, bateragarritasun kontua egotea, nola ekin aurreikusten duen Lurzoruari buruzko Legeak jasotzen duen bezala.

Bigarrena: jakingo duzuen bezala, Euskadiko lurralde-antolamenduaren batzordeak egin behar du horren inguruko txostena.

Hirugarrena: beste alde batetik, bi udaletan, Abadiño eta Durangon, hirigintzako aholkularitzabatzordeak batu behar dira, legean ezarritakoari jarraikiz.

Laugarrena: Abadiñoako Udalean herritarrek kontsulta egiteko prozesua zabalduko da.

Bosgarrena: jendaurrean jartzeko prozesuak, etab.

Alderdi Popularrak proposamena egiten duen taldea gonbidatzen du bere aldetik desegoki izendatutako elikadura-autonomia bazter uztera eta errealitateari begira jartzera.

Lehia dago eta horrek merkataritzaren biziraupenari ematen dio bide, bai eta enpleguaren sorrerari ere; kasu honetan, 80 lanpostu inguru. Zergatik liskarra bilatu beharrean ez dute proposatzen adostasunen batera heltzea, lanpostu kopuru hori Durangoko herritarrei egokitzeko?

EH Bildu se permite cuestionar una decisión que corresponde a otro ayuntamiento, el de Abadiño y da por supuesto que aquél no va a hacer lo que la ley le obliga a realizar. Y esto sí que es un atrevimiento. Pero lo curioso del caso es que ya ha aparecido en prensa los pasos que va a seguir el ayuntamiento y da la casualidad de que es lo que preceptúa la ley.

El Partido Popular no acaba de entender que EH Bildu de Durango se tenga que inmiscuir en las decisiones de ese ayuntamiento. Por cierto, ¿fueron igual de beligerantes con las grandes superficies y defensores del pequeño comercio cuando se abrió Eroski a escasos metros de lo que hoy nos ocupa? ¿Han defendido con igual entusiasmo a los pequeños ahorradores tal vez afectados por Eroski? ¿Tienen una doble vara de medir? El Partido Popular cree que sí. Pero en lo que hace referencia al Ayuntamiento de Durango:

Primero: es muy posible, casi seguro, que haya un tema de compatibilidad tal y como recoge la ley del suelo que contempla como abordarlo.

Segundo: como ustedes deben saber, es la comisión de ordenación del territorial del País Vasco la que debe elaborar un informe al respecto.


Tercero: por otra parte, en los dos ayuntamientos, Abadiño y Durango, se deben reunir los correspondientes consejos asesores de urbanismo según lo establecido en la ley.

Cuarto: en el ayuntamiento de Abadiño se va a abrir un proceso de consulta ciudadana.

Quinto: los correspondientes procesos de exposición pública, etc.

El Partido Popular invita al grupo proponente a dejar de lado la mal llamada por su parte autonomía alimentaria para centrarse en la realidad.

Existe competencia y ésta favorece la supervivencia del comercio y la generación de empleo, en este caso unos 80 puestos de trabajo. ¿Por qué, en lugar de buscar la confrontación, no proponen llegar a algún tipo de acuerdo que permita que parte de ese número pueda corresponder a personas de Durango?



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Alderdi Popularrak proposamen honen aurka egingo du.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Eskerrik asko gobernu-talde gisa proposatu duguna sartzeagatik. Agerikoa da Durango zerbitzuen herria dela, Durango erreferente dela, saltoki txikiei esker, eta ez eskualde mailan bakarririk. Gure lana da merkataritza hori babestea eta zaintzea. Hala ere, kontziente gara Abadiñoko Udalari dagokiola erabaki hori hartzea, baina, hala ere, Durangori zuzenean eragiten dio. Beraz, horren guztiaren oinarriak udalerrien arteko elkarrietzeta izan behar du. Testuaren alde egingo dugu.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Esan nahi dut argi izan behar dugula zer herri nahi dugun, nolakoa nahi dugun, lo egiteko herria nahi dugun, hutsa... Gure herria zaindu behar dugu eta haren aldeko apustua egin, kalitateko zerbitzuak eman behar ditugu, hurbilak, garapen iraunkorreko herri izan dadin, ibilgailua ahal dela gero eta gutxiago erabiltzen duena. Durangoren eta bertako zerbitzuen alde egin behar dugu.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: EAJren izenean nik neuk aurreratuko dut aldeko bozka emango dugula, onartutako alaketarekin.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Alderdi Popularreko Bozeramaleari esan behar diot nahastu egin dela terminoekin; gu ez gara autonomistak, gu soberanistak gara, gu ez gaude autonomia alimentarioaren alde, baizik eta elikadura burujabetza aldarrikatzen dugu, terminoa beste bat da; nahi duenean hitz egingo dugu horretaz.

Elikadura burujabetzak ez du esan nahi hemen kontsumitzen dugun %100a hemen egin behar dugula, baizik eta hausnarketa sakonago bat egitea, jakiteko zenbateko gaitasuna daukagun hemendik hurbileko zirkuituetan ekoizteko eta kontsumitzeko. Orain dela gutxi ere eskola publiko gurasoak antolatu egin dira, aldarrikatzeko eskola publikoetan bertako produktuak kontsumitzea. Horiek dira elikadura burujabetzan eman behar diren pausuak, baina beste eztabaida bat

El Partido Popular va a votar en contra de esta propuesta.


* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Agradecer la incorporación que hemos propuesto como Equipo de Gobierno. Es evidente que Durango es una ciudad de servicios, que Durango es un referente gracias al pequeño comercio, no solo a nivel de comarca, y que nuestra labor está en proteger y cuidar a este comercio. Sin embargo, somos conscientes que es una decisión que compete al ayuntamiento de Abadiño y aún así nos afecta directamente a Durango, por lo tanto la base de todo ello debe ser el diálogo que se entable entre los diferentes municipios. Vamos a apoyar el texto.

* Concejál **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Quiero incidir que debemos de tener claro qué pueblo queremos, cómo lo queremos, si queremos un pueblo dormitorio, vacío... Tenemos que apostar y cuidar de nuestro pueblo, dar servicios de calidad, de cercanía, que sea un pueblo con desarrollo sostenible, utilización, cada vez menos si se puede del vehículo y apostar por Durango y sus servicios.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (Irigoras Alberdi (EAJ/PNV))**: En nombre del PNV adelanto que votaremos a favor de la moción con el cambio que se ha aprobado.

* Concejál **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Tengo que decirle al Portavoz del Partido Popular que se ha liado con los términos; nosotros no somos autonomistas, somos soberanistas. No estamos a favor de la autonomía alimentaria, sino que reivindicamos la soberanía alimentaria; es un término distinto, y podemos hablar de ello cuando quiera.

La soberanía alimentaria no significa que debemos producir aquí el 100 % de lo que consumimos, sino que se debe realizar una reflexión más profunda para determinar nuestra capacidad de producir y consumir en los circuitos cercanos. Recientemente, los padres y madres de los niños de la escuela pública se han organizado para reivindicar que allí se consuman productos locales. Esos son los pasos que deben darse hacia la soberanía alimentaria, pero



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

da. Baina ez gara autonomistak soberanistak baizik.

Esatea hau Abadiñoren gauza bat dela, lehenengo eta behin eta errespetu osoz, hirigintza zer den ez jakitea da, eta, are gehiago, lurralde antolaketa zer den ez jakitea. Ez gaude irletan, herrietan gaude; lurreta, Durango eta Abadiño errealitate fisiko bat, sozioekonomiko eta urbanistiko bat garela oso argi dago, eta ezin dira egin hirigintza plangintzak irla bat bagina moduan.

Eta jakina daukagula zeresana, guk ez baditugu errepideak egiten merkataritza guneez, ez da egingo, guk ez baditugu ahalbidetzen sistema orokorrak hori egin ahal izateko, ez da egingo, jakina daukagula tresnak horri aurre egiteko.

Beraz, jarrera politiko bat hartzeko mozio bat zen, eta argi dago zein den Alderdi Popularraren jarrera politikoa; prest dago herri barruko merkataritzari sekulako kalteak eragingo dizkion proiektua babesteko, merkataritza gunerik handi hori handitzearen alde agertzen da eta hori herritarrei azaldu behar die, durangarrei eta Durangoko dendariei eta ostalariei.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Bozkatu egingo dugu egon den aldaketa horrekin.

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: BAT, 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehien goaren botoarekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua, Talde Sozialistak beraren 3 puntuari buruz, zein horrela geratuko den, proposatutako altxatzearekin:

se trata de otro debate. Pero no somos autonomistas; somos soberanistas.

Decir que esta es una cuestión que concierne a Abadiño significa que, en primer lugar y con todo respeto, no se sabe qué es el urbanismo; es más, que no se sabe qué es la organización territorial. No residimos en islas; residimos en pueblos. Está claro que lurreta, Durango y Abadiño somos una realidad física, socioeconómica y urbanística, y no se pueden diseñar planes de urbanismo como si fuéramos una isla.

Y por supuesto que tenemos algo que decir. Si nosotros no construimos carreteras para los centros comerciales, no se van a hacer; si no permitimos sistemas generales para hacerlos, no se van a hacer. Por supuesto que tenemos herramientas para hacerle frente.


Así pues, se trata de una moción para posicionarse políticamente, y la actitud política del Partido Popular está clara. Están dispuestos a proteger un proyecto que va a perjudicar gravemente al comercio del interior del pueblo. Están a favor de ampliar ese enorme centro comercial, y se lo tiene que explicar a la ciudadanía, a los durangueses y a los comerciantes y hosteleros de Durango.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Vamos a votar teniendo en cuenta el cambio que se ha hecho.

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: UNO, 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

Por lo tanto,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita, con la incorporación propuesta por el Grupo Socialista respecto al punto 3 de la misma, el cual quedará así:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

3.- Abadiñoako Udalarri ezagutaraztea, egin nahi duen aldaketa ezin dela aldebakarrekoa izan, eta are gutxiago Durangoko Udala kontuan hartu gabe. Beraz, beharrezkoak diren bitartekoak erabiliko dira Durangoko udalerrian hiri-merkataritzan, eta ez periferikoa, oinarritutako hiri garapen eredu bat defendatze aldera, eta udal plangintzak garapen eredu honekin bateragarriak izan daitezen, horretarako, ahalik eta lasterren egingo dute bat mugakide diren udalek, Lurzoruari buruzko Legearen 63. artikulua ezartzen duen bezala".

3.- Dar a conocer al municipio de Abadiño que una modificación como la que pretende no se puede iniciar de manera unilateral y mucho menos sin tener en cuenta al municipio de Durango, por lo cual se pondrán en marcha los mecanismos pertinentes para defender un desarrollo sostenible para el municipio de Durango y para defender la compatibilización del planeamiento municipal con ese tipo de desarrollo, para lo que se unirán en la mayor brevedad los ayuntamientos limítrofes, tal y como establece la Ley del Suelo en su artículo 63."

SEI.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, MIKELDIKO IDOLOA RI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016002709, 2016KO APIRILAREN 14KOA).

SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL ÍDOLO DE MIKELDI. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016002709, DE 14 DE ABRIL DE 2016).

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Ondoren datorren seigarren puntuaren inguruan ibili gara proposamenak egiten eta eztabaidatzen Bozeramaleen Batzordean, eta aho batez onartu dugu ondorengo adierazpena; hain zuzen ere, Durangoko Udalak bere gain hartzen duela konpromisoa behar besteko gestioak egiteko Mikeldiko idoloa Durangora ekartzeko. Zeintzuk diren gestio horiek, norekin hitz egin behar den, noren aurrean egin behar diren... Hori guztia kultura batzordeak, lehenengo momentuan behintzat, zehaztuko du, eta eztabaidatuko du.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): Sobre este punto 6, se han hecho propuestas y se ha debatido en la Junta de Portavoces. Hemos aprobado una declaración por unanimidad, según la cual el Ayuntamiento de Durango se compromete a realizar las gestiones necesarias para traer aquí el ídolo de Mikeldi. Qué gestiones son, con quién hay que hablar y dónde hay que hacerlas... En principio, todo eso lo concretará la Comisión de Cultura, y allí se debatirá cómo actuar.

Hori da aho batez onartu duguna, beraz, mozioa ez dugu bertan tratatuko baina bai nahiko nuke aktan agertzea hemen adierazitakoa.


Eso es lo que se ha aprobado por unanimidad. Por lo tanto, no vamos a tratar la moción aquí, pero me gustaría que todo lo manifestado constase en acta.

ZAZPI.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, EUSKOTRENAREN TARIFIKAZIO SISTEMAREN ERREBISIOARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016002727, 2016KO APIRILAREN 14KOA).

SIETE.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA A LA REVISIÓN DEL SISTEMA DE TARIFICACIÓN DE EUSKO TREN. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016002727, DE 14 DE ABRIL DE 2016).

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozera-maileak izenpeturiko mozioa, Euskotrenaren tarifikazio sistemaren errebisioari buruzkoa. Sarrera Erregistroa 2016002727, 2016ko apirilaren 14koa, eta honako hau dioena:

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación del Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa a la revisión del sistema de tarificación de Euskotren, con Registro de Entrada nº 2016002727, de 14 de Abril de 2016, del tenor literal siguiente:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

"Euskotrenek indarrean jarri duen tarifen berrantolaketak Durangaldeko eskualdea zatikatu egin du. Orain arte Durango eta Trañarekin batera osatzen zuten zonaldeak atera ditu Berriz eta Zaldibar. Erabaki hau hartzeko orduan Euskotrenek Garraio Partzuergoak egindako zonifikazio berria hartu egin du kontutan.

Zonifikazio eta tarifakazio berri honek ez du inolako zentzurik, gure eskualdea zatikatu egiten baitu. Izan ere, ez du Durangaldeko herritarren errealitatea islatzen eta, gainera, eskualdeko erabiltzaile eta udalen iritzia kontrastatu barik egin da. Are gehiago, zonifikazio eta tarifa ezarri ondoren ez Euskotrenek, ez Garraio Partzuergoak, ez du inolako azalpen eta argibiderik eman.

Ondorioz, eskualdeko herritarrok gehiago ordainduko dugu ohikoenak ditugun bidaiak egiteko, lanera joateko, ikasteko, medikura joateko, erosketak egiteko edota aisialdirako. Adibidez, Durangotik Traña, Berriz edo Zaldibarrera bidai arruntek eta alderantziz, 1,95€-ko kostua izatera pasatuko dira, orain arte 1,70€ko kostua izan duenean. Barik txartela izanez gero orain baino 31 zentimo gehiago balioko du ibilbideak, 1,24€. Hilabete osoko bonuak 30€ balio zituen, aurreko astetik aurrera 36,50€.

Neurri honek garraio publiko eta jasangarria bultzatzearen aurkako norantza darama, ibilgailu pribatuaren erabileraren saturazio nabarmena daukagun eskualde honetan. Durango, eskualdeko buru izanik, hezkuntza, osasungintza, lana, erosketak edo aisialdiak dakartzan desplazamenduen hartzailea ere bada. Euskotrenek eta Garraio Partzuergoak erabaki duten neurria eskualdeko garapen bateratu eta jasangarri baterako oztopo bat da.

Horregatik guztiagatik:

- 1- Durangoko Udaleko osoko bilkurak Euskotreni eskatzen dio tarifakazio sistemaren errebisioa egin dezala eta Berriz, Zaldibar, Durango eta Abadiño (Traña) tarifakazio zonalde berean berriro elkartzea.
- 2- Durangoko Udaleko osoko bilkurak Garraio Partzuergoari eskatzen dio Durangaldeko eskualdeko herriak tarifakazio zonalde berean elkartzea."

"La reordenación de las tarifas que Euskotren ha puesto en marcha ha dividido al Duranguesado. Berriz y Zaldibar, que hasta ahora compartían zona con Durango y Traña, ya no pertenecen a esta zona. Por lo visto, en la toma de esta decisión Euskotren ha tenido en cuenta la nueva zonificación del Consorcio de Transportes.


La nueva zonificación y tarificación no tiene ningún sentido, ya que divide nuestra comarca. No refleja la realidad que vivimos las vecinas y los vecinos del Duranguesado, y, además, no han contrastado la opinión de las personas usuarias y los ayuntamientos de la comarca. Es más, tras establecer la nueva zonificación y la tarifa, ni Euskotren ni el Consorcio de Transportes, han dado ninguna explicación ni aclaración.

Por lo tanto, las personas vecinas del Duranguesado pagaremos más para hacer los viajes más habituales: ir a trabajar, estudiar, ir al médico, hacer compras o pasar nuestro tiempo de ocio. Por ejemplo, los viajes comunes entre Durango y Traña, Berriz o Zaldibar valdrán 1,95€, cuando hasta ahora han costado 1.70€. Utilizando la tarjeta Barik, el trayecto es 31 céntimos más caro que antes: 1,24€. El bono mensual costaba 30 € hasta la semana pasada, y ahora vale 36,50 €.

Esta medida va en contra de impulsar el transporte público y sostenible, en esta comarca en la que tenemos una evidente saturación del vehículo privado. Siendo cabecera de comarca, Durango es también receptora de los desplazamientos por razones de educación, salud, trabajo, compras y ocio. Por ello, la medida que han aceptado Euskotren y el Consorcio de Transportes es un obstáculo para un desarrollo unificado y sostenible.

Por todo ello:

- 1- El pleno del Ayuntamiento de Durango pide a Euskotren que revise el sistema de tarificación y aún una otra vez en la misma zona de tarificación a Berriz, Zaldibar, Durango y Abadiño (Traña).
- 2- El pleno del Ayuntamiento de Durango pide al Consorcio de Transportes que aún los pueblos del Duranguesado en la misma zona de tarificación."



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzaeak ematen dira.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu):** Azkeneko asteetan mobilizazioak eta protestak bizi izan ditugu Berrizen eta Zaldibarren Euskotrenek egin duen tarifa igoera dela eta. Mozioak hainbat adibide jasotzen ditu, eta hemen batzuk aipatuko ditugu, hau da, bidaia arruntak Durangotik Traña, Berriz edo Zaldibarrera, edo alderantziz, 1,95 euro balioko du orain arte 1,70 euro kostatu duenean; BARIK txartelarekin eginez gero 31 zentimo gehiago izango dira eta hilabeteko bonoak 6,5 euro gehiago balioko du.

Euskotrenek ez du kontsultatu aipatutako udalekin, eta hasiera batean ez du azalpenik eman; guk azalpen horiek eskatu ditugu eta jaso ditugu. Berez, ez da igoera bat, Euskotrenek egin duena da zonifikazio berri bat indarrean jartzea; hau da, zona honetako muga mugitu egin dute eta Ermutik Trañara ekarri du. Horregatik dira garestiagoak Berriztik eta Zaldibartik Durangora egiten diren bidaiak. Horrek zatikatu egiten du eskualdea.

Gerora jakin dugu Euskotrenek Garraio Partzuergoak egindako zonifikazioak hartu dituela. Zonifikazio horiek aztertzen baditugu eta mapa batean begiratzen baditugu, ikusten dugu normalean distantziaren arabera egiten direla. Guk uste dugu ez dela bat ere egokia, eta zonifikazio horiek ez dutela kontuan hartzen eskualdean ematen diren harreman naturalak. Guk eskualde izaera indartu nahi badugu, zonifikazio hau oztopo bat da, harreman naturalak bermatu egin behar dira.

Eta ez bakarrik eskualde izaera; eskualde honetan egiten diren bidaiak eta egiten den mugikortasuna ahalik eta jasangarriena izan behar da, beraz, Euskotrenek egin duen zonifikazio hau oztopo bat da, harreman naturalak mantentzeko eta, aldi berean, garraio publikoa, jasangarria dena, indartzeko. Eskatzen duguna zera da:

- Euskotreni eskatzen diogu zonalde berean mantentzea Durango, Traña-Abadiño, Berriz eta Zaldibar.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:


* **Concejal Sr. Del Amo Castro (EH Bildu):** En las últimas semanas, ha habido movilizaciones y protestas en Berriz y en Zaldibar por la subida de tarifas de Euskotren. En la moción se recogen algunos ejemplos, y mencionaremos alguno aquí. El billete normal para viajar desde Durango a Traña, a Berriz y a Zaldibar —y viceversa— va a costar 1,95 euros, y hasta ahora costaba 1,70 euros. Si se utiliza la tarjeta BARIK, serán 31 céntimos más que hasta ahora, y el bono mensual costará 6,5 euros más.

Euskotren no lo ha consultado con los ayuntamientos correspondientes, y en principio no ha dado ninguna explicación. Nosotros se la hemos pedido y nos la ha dado. No se trata de una subida en sí misma; Euskotren ha puesto en vigor una nueva zonificación, según la cual el límite de esta zona se ha desplazado desde Ermua hasta Traña. Por eso serán más caros los viajes desde Berriz y Zaldibar hasta Durango. Como consecuencia de ello, la comarca ha quedado dividida.

Posteriormente hemos sabido que Euskotren ha utilizado las zonificaciones del Consorcio de Transportes. Si analizamos las zonificaciones y las situamos en el mapa, veremos que normalmente se hacen en función de la distancia. Opinamos que no es para nada adecuado, y que las zonificaciones no tienen en cuenta las relaciones naturales que se dan en la comarca. Si nuestro objetivo es reforzar el carácter comarcal, esta zonificación es un obstáculo, porque se deben garantizar las relaciones naturales.

Y no solo el carácter comarcal; los viajes que se hacen en esta comarca y su movilidad deben ser lo más sostenibles posible. Por consiguiente, la zonificación de Euskotren es un obstáculo para mantener las relaciones naturales, así como para reforzar el transporte público, que debe ser sostenible. Esto es lo que solicitamos:

- Solicitamos a Euskotren que mantenga a Durango, Traña-Abadiño, Berriz y Zaldibar en la misma zona.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

- Txartel bakarraren bidean, seguruenik Garraio Partzuergoak daukan zonifikazioa berraztertu beharko da, eta, hori egiten denean, kontuan hartu behar direla eskualde naturalak eta ez bakarrik distantziak.

* **Garate Mintegui jaunak (PP):** Alderdi Popularrak adierazi nahi du gure batzar-taldeak eskatu duela Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko Diputatua agertzeko, Reyes jauna, azaltzeko zer arrazoi dauden aztertzen ari garen erabakiaren oinarrian. Alderdi Popularra ez dago, inondik inora ere, erabaki horrekin ados, baina horrek ez du eragozten erantzukizunetik erakunde eskudunari eskatzeko beharrezko azalpenak eman ditzan.

Alderdi Popularrak ulertzen du alderdi politikoek erakunde-koordinazioa nahikoa ez dutenean edo, edukiz gero, agerian jarri nahi ez dutenean, oso erraza dela demagogikoki jardutea herritarrentzat bereziki sentikorrek diren gaien inguruan.

* **1. Alkateordea Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Erabat ados gaude azaldu diren argudioekin, baina xehetasuna eskatu nahi dugu bigarren puntuan. Honela gelditzeko eskatu nahi dugu:

- Durangoko Osoko Bilkurak Garraio Partzuergoari eskatzen dio tarifa integratzeko sistemako eremuen berrikuspenak azter dezala aurreko puntua sartzea.

Proposamena onartuz gero, aldeko botoa emango dugu.

* **Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea):** Gure ustez, zonifikazio berri hori aitzakia bat da tarifaren igoera ezkutua egiteko eta, jakina, ez gaude horren alde, hainbat motibo tarteko.

Motiboetako bat da garraio publikoaren prezioa garestiagoa izatea egiten badugu, funtsean ez garela sustatzen ibiliko.

Bestalde, kontuan hartuta normalean garraibide publikoak erabiltzen dituzten pertsonak erosteko ahalmen gutxiago dutela eta horiei eragin dietela batez ere; garestitzeak haiek zigortzen ditu.

- En el proceso de establecer la tarjeta única, es probable que se revise la zonificación del Consorcio de Transportes, y cuando se haga, se deberán tener en cuenta las comarcas naturales, no solo las distancias.

* **Concejal Sr. Garate Mintegui (PP):** Desde el Partido Popular, queremos manifestar que nuestro grupo juntero ha pedido la comparecencia del Diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del territorio, el señor Reyes, para que nos explique cuáles han sido las razones que han inspirado la decisión que estamos tratando. Desde luego, es una decisión con la que el Partido Popular no está en absoluto de acuerdo, pero no obsta para que desde la responsabilidad se acuda a la institución competente para que dé las explicaciones pertinentes.

Desde el Partido Popular, entendemos que cuando las diferentes formaciones políticas no tienen la necesaria coordinación institucional o, si la tienen, no la quieren poner de manifiesto, es muy sencillo actuar de forma demagógica en asuntos que resultan especialmente sensibles para los ciudadanos.

* **1ª Tnte. de Alcalde Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Estamos plenamente de acuerdo con los argumentos que se han expuesto, pero sí pedimos una matización en el punto dos que solicitamos que quede de la siguiente forma:


- El pleno del Ayuntamiento de Durango pide al Consorcio de Transportes que la revisión de las zonas del sistema de integración tarifaria analice el encaje del punto anterior.

De ser aceptada votaríamos a favor.

* **Concejala Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea):** Opinamos que esta nueva zonificación es realmente un pretexto para hacer una subida encubierta de la tarifa, y, evidentemente, no estamos a favor de ello por diversos motivos.

Uno de ellos es que si hacemos que el precio del transporte público sea más caro, realmente no lo estamos potenciando.

Por otra parte, teniendo en consideración que las personas que usan los transportes públicos habitualmente son las personas que tienen menor capacidad adquisitiva y a los cuales ha afectado más contundentemente, se les penalice.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

Beste alde batetik, eskualdeko herrietatik Durangora sartzeko bidea zailtzen badugu, kontuan hartuta bertan egiten direla kudeaketa gehienak, eta bertara doala jendea eta, bide batez, zerbait hartzen duela edo saltoki batera doala, Durangoko bizitzari egingo diogu kalte, merkataritza txikiari eta ostalaritzari.

* **Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):** EAJren izenean neuk hitz egingo dut. Nik azalduko dut nire esperientzia propioa, gehien bat eskualde honetako beste alkate batzuekin berba egin eta gero.

Hitz egin dut Berrizko alkatearekin eta Abadiñoarekin, eta badakit, horrela adierazi didatelako Zaldibarko alkatearekin ere harremanetan dabilazala gai honen kontura. Nik uste dut puntu honetan gure elkartasuna adierazteko momentua dela hau, eta, adieraztea ere, emandako pausu administratibo guztiak azpimarratu behar direla, hau da, inplikaturako herrietako hiru alkateek egindako lana beste instituzioekin goraiatu behar dela.

Gure adostasuna adierazi gura dut, aipaturiko aldaketa hori proposatuta, mozioaren alde bozkaturaz, Berriz, Abadiño eta Zaldibarko herritarren mesedetan.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu):** Eta Durangoak ere bai, bidaiak ez direlako bakarrik norabide baten egiten; igoera ez da bakarrik Zaldibartik Durangora zatozenean, alderantzizko norabidean ere igoera aplikatu da. Durangoko herritarrak dira kalteak eta Durangoko izaera eskualde buru bezala ere, kaltetua izan daiteke igoera honekin, beraz, afektatuak bagara.

Horregatik Alderdi Popularreko Bozeramaileari esan nahi diogu gai hau hemen tratatu behar dela eta Durangoko Osoko Bilkurak badaukala zeresana honen inguruan. Eta gainera esan behar dio Garraio Partzuergoari eta Euskotreni. Euskotren ez dago Foru Aldundiaren menpe, beraz, juntetan egiten dena gauza bat izan daiteke, baina Euskotren Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoenez, agian Legebiltzarrean egin beharko da zerbait; ez da nahikoa juntetan egiten denarekin. Eta ondo dago Alkate andreak egin duena, elkartasuna adieraztea

Por otro lado, si dificultamos que los pueblos de la comarca puedan acceder a Durango, que es donde se hacen la mayoría de las gestiones, y la gente viene y de paso se toma algo o va a un comercio, perjudicamos a la vida de Durango, al pequeño comercio y hostelería.


* **Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** Voy a intervenir yo misma en nombre del PNV. Voy a explicar mi propia experiencia, sobre todo tras hablar con otros alcaldes de esta comarca.

He hablado con los alcaldes de Berriz y de Abadiño, y sé que también están en contacto con la alcaldesa de Zaldibar por este tema, porque así me lo han manifestado. En este punto, creo que este es el momento de expresar nuestra solidaridad. Además, se deben subrayar todos los pasos administrativos que se han dado, es decir, alabar el trabajo que los alcaldes de los tres pueblos han hecho con otras instituciones.

Para expresar nuestro acuerdo, votaremos a favor de la moción con el cambio que se ha propuesto, por el bien de la ciudadanía de Berriz, Abadiño y Zaldibar.

* **Concejal Sr. Del Amo Castro (EH Bildu):** Y también por el bien de la ciudadanía de Durango, porque los viajes no se hacen solo en un sentido. No en vano, la subida no se va hacer solo para los viajes a Durango, sino que también se va a aplicar en el sentido contrario. El perjuicio se le hace a la ciudadanía de Durango, y con esta subida también puede verse perjudicado su carácter de cabeza de comarca. Por lo tanto, nosotros también estamos entre los afectados.

Por eso queremos decirle al Portavoz del Partido Popular que este tema debe tratarse aquí y que el Pleno del Ayuntamiento de Durango tiene algo que decir sobre ello. Y que además debe comunicárselo al Consorcio de Transportes y a Euskotren. Euskotren no depende de la Diputación Foral; por consiguiente, se puede hacer lo que sea en las Juntas, pero dado que Euskotren depende del Gobierno Vasco, quizá se deba hacer algo en el Parlamento. Actuar en las Juntas no es suficiente. Y está bien lo que ha hecho la señora Alcaldesa, es decir, mani-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

gainontzeko udalei, baina apur bat gehiago eskatuko nioke; hau da, besteek egiten dutena egitea, eta jarrera aktiboa izatea.

Eta proposatutakoaren inguruan, ez daukagu arazorik aldaketa hori mozioan sartzeko.

* **Garate Mintegui jaunak (EH Bildu):** Alderdi Popularra ez dago batere ados erabaki horrekin. Baina, aldi berean, jakin nahi du zergatik hartu diren erabaki horiek; dagozkion erakundearen arrazoiak berri izan ondoren, dagozkion ekintzak jarriko ditugu martxan, durangarren eta eskualdearen interesak defendatzeko, baldin eta baliatutako argudioak nahikoak ez badira. Baina oraindik ez dugu azalpenik.

* **1. Alkateordea Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Nire ustez gainerako udalei gure laguntza eskaini behar diegu. Egoera hau aldatzeko gure esku dagoen guztia egin behar dugu. Berritoki ere diogu eskumena Garraio Partzuergoak eta Euskotrenek dutela, eta Vicente Reyes diputatuak ez duela kontu honetan zerikusirik. Aldeko botoa emango dugu.

* **Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea):** Gure asmoa da mahai gainean jartzea goi-instantzietan hartzen diren erabakiek beste leku batean dauden pertsonengan dutela eragina, eta pertsona horiek, normalean, herritarrak direla. Erabaki horiek beharbada pertsona ahulenengan dute eragina. Garraiobide iraunkorrak edo ez hain iraunkorrak bultzatzen ari gara, ingurumena gehiago edo gutxiago babesten dutenak, eta horrek, pertsonengan ez ezik, merkataritzan, mugikortasunean eta gainerakoetan ere badu eragina.

* **Alkatesa Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** EAJren izenean. Agian ez naiz oso ondo azaldu, beraz, berritoki esango dut. Gure elkartasuna adieraztea ez da bakarrik "un brindis al sol" baizik eta "predicar y dar trigo" esan nahi dut; ahal diren neurriak hartzea, eta Alkate moduan neure burua jarri dut prest, eta horrela adierazi diet gainontzeko alkateei, behar diren kontuetan kontuan hartzeko Durango.

festar su solidaridad al resto de ayuntamientos, pero le pido algo más: que haga lo que los demás han hecho y que adopte una postura activa.


Y sobre el cambio propuesto, no tenemos ningún problema en introducirlo en la moción.

* **Concejal Sr. Garate Mintegui (EH Bildu):** Insisto en que el Partido Popular no está en absoluto de acuerdo con esta decisión. Pero, a su vez, quiere saber por qué se han adoptado estas decisiones, y una vez conocidos los razonamientos de las instituciones correspondientes, adoptaremos las acciones que correspondan para defender los intereses de los duranguenses y duranguesas y de la comarca, si los argumentos esgrimidos no nos parecen suficientes. Pero todavía no tenemos esa explicación.

* **1ª Tnte. de Alcalde Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** Creo que sí debemos apoyar al resto de municipios. Debemos de hacer todo lo que esté en nuestra mano para que esto cambie. Insistimos en que la competencia es del Consorcio de Transportes y de Euskotren, y que el Diputado Vicente Reyes no tiene nada que ver en todo esto. Votaremos a favor.

* **Concejala Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea):** Nuestra intención es poner sobre la mesa cómo las diferentes decisiones que se toman en altas instancias afectan a otras personas que están en otro lugar y que normalmente es la ciudadanía. Son decisiones que afectan a las personas, quizás, más vulnerables. Estamos apoyando medios de transporte más o menos sostenibles, que protegen más o menos el medio ambiente y eso afecta, no solamente a las personas, sino también al comercio, a la movilidad y demás.

* **Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** En nombre del PNV. Quizá no me he explicado bien, así que lo voy a repetir. Que manifestemos nuestra solidaridad no es solamente un "brindis al sol", sino "predicar y dar trigo"; es decir, tomar las medidas que se puedan tomar. Como Alcaldesa, les he expresado a los demás alcaldes que estoy dispuesta a que tomen en cuenta a Durango en los que sea necesario.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Akta 2016ko Apirilak 19a

Acta 19 de Abril de 2016

